

Kaleratzeen aurrean, Imegarreko langileak mobilizazioekin hasiko dira

Beste langile bat kaleratua izan da.

LAB-ek, kaleratze hauen aurrean, gaitzespen osoa azaldu nahi du, kaleratzeen helburu bakarra lan sindikala zigortzea baita. Aurretik ateratako prentsa ohar batean sindikatuko delegatu baten kaleratzea salatu zuten. Delegatu horrek langile asanblada batean irabazien banaketa bidegabea egiten ari zela salatu zuen. Enpresak informazio hau langileei ezkutatu egin die eta argitara atera den momentuan, errepresalia eta xantaiak bata bestearen atzetik etorri dira.

Astelehen honetan bigarren kaleratze baten berri izan du sindikatuak, zehazki LAB-eko beste afiliatu batena.

Aurretik azaldutakoa kontuan hartuta, aste honetan, bi langile asanblada burutu dituzte, kaleratze hauen aurrean erantzuna artikulatu ahal izateko eta bi lankideak euren lanpostuetara bueltatzea eskatzeko.

Horregatik, bi kontzentrazio deialdi egongo dira, bata ostiralean eta bestea astelehenean, 13:30etatik 14:30etara. Bi kontzentrazio horien ostean grebarekin hasiko dira langileak, kaleratutakoak berriz onartu arte.

LABek berriro dio egoera honen aurrean elkartasun eta borrokarako deia egiten duela, bai lantokian, baita eskualdean ere. Ez du onartuko lan sindikala burutzeagatik edozein delegatu edo langile kaleratzea.

Euskal Herrian, 2024ko apirilaren 11n